

---

# ZOZOMIKOTEAK

---

- Aurtengo Zezeilla (Otsailla) bigun dijoakigu; baña, Martia agertuko da gogor.
- Martiak kalte aundiak egingo ba'dauz, Apirillaren laguntza bear dau.
- Apirillaren laguntza? Zertan ari zara?
- Badagoz gai oneri buruz Euskalerra'n esaera zaar batzuek.
  - Zer dira esaera onek?
  - ZOZOMIKOTEAK
  - Zozomokoteak? Ez dot sekulan orrelakorik entzun be.
  - Ona esaera oien muiña: Martia ebillen zezen gorri bategaz burruka bizian.
    - Zergaitik?
    - Orixen ez dakit, zergaitik ebillen asarre Martia Jauna; dakiguna da, asarrearen asarez, zezena erailtzea erabaki ebala.
    - Eta, ori lortzeko, zeer jokabide erabilli eban Martia jaunak?
    - Mendigaiñak, maldak eta zelaiak elurrez goraiño bete; ez zan belar-izpirik ikusten iñun.
    - Goseaz iltzeko asmoz, ala?
    - Asmoa bai, asmoa ustel gertatu zitzaion, ordea.
    - Ustel, nola?
    - Arte zaar baten babesean gorde eban beure burua zezenak eta Martiaren eraso-aldiari bizirik eutxi eutson, illa amaitu arte.
      - Eta?
      - Zezenak bere eskuetatik bizirik alde eutsola ikusirik, Martiak bi egun t'erdi eskatu eutsozan Apirillari. Eta Apirillak Martiari emoniko bi egun t'erdiak, orrek dozak ZOZOMIKOTEAK. Egund oietan eraso eutson berriro Martiak zezenari, erailtzeko.
        - Baña, neuk Gipuzkoa'ko Goierrian beste era batera entzunda daukot.
        - Zela, ba?

- Martia artzai bategaz asarretu ei zan. Artzaiak eun ardi eta ari bat eukon mendian eta berak begi bakar bat aurpegi-an.
- Eta, zer?
- Martia eta Apirilla, euren artean berbetan diarduen, eta Apirillak:

"A, Martxo, Martxo  
diat esker gaizto..."

Eta Martiak erantzun:

"A, Apiltxo, Apiltxo...  
Ekatzak eun bi  
ta erditxo,  
artzai orri  
kendu eiotzan  
eun ardi ta arie  
eta berari  
ezkerreko begie..."

- Eta, zer gertatu zan?
- Emon eutsozan egunok eta orduan Martiak izugarritzko ekaitzak eta urjolak sortu ebazan. Urak eun ardiak aurretik eraman ebazan koba-zulo batera eta barru aretan galdu. Artzaiak, berriz, aria lepoan artu, uretik aparte; baña, ariak aldamenara begiratzean, sartun eutson adarra begi bakar aretan eta gelditu zan begirik gabe. Arrezkero esan eida, ZOZOMIKOTEAK eguraldi txarrekin datoztela.

Anes Arrinda

---

## EUSKALERRIKO URAK

Euskalerriko urak, erdian dan mendikateak banatzen dauz, ur batzuk Kantauri itxasora doaz, ibai naikoa txieketatik, orrek dira Euskalerra ezoko urak. Beste batzuk, ostera, mendikatearen egoaldera doaz, erreka guztiak Ibero errekarra sartzen dirala, eta ibai au Lurrarte edo Mediterrane itxasora doa.

Orrelan, toki batzutan urak banatzen dituan lerroa aurkitzen dogu, esaterako: Urkiola-gaiñean dan eleizako teillatutik, alde bateko urak Lurrarte itxasora doaz eta beste aldekoak, Kantauri'ra Antzera jazoten da Barazar gaiñean eta beste toki askotan be.

Garrantzi aundikoa da ba Euskalerrian, Mendikate au.